



HERRI JAI FEMINISTAK, 2015

NIK ERABAKI, GUK GOZATU!!!

“Tengamos la fiesta en paz!” entzun izan dugu hainbat eta hainbat aldiz. Eta ez da baieztapen hutsala, festak gure errealitateetik ihes egiteko burbuilatzat saldu izan baitira. Eredu patriarkal eta kapitalistari men egiten dioten eskuineko gobernuek jaiak kontsumo-gai bihurtzen dituzte, herri jaiak erasotuz. Eta jaiak bere jendarte eredu hedatzeko baliatzen dituzte.

Bada, festak ez dira jendartetik at dauden bake eta poz gune isolatuak. Festak politikoak dira, guztiontzat. Eduki sinbolikoa duten jendarte eta kultur adierazpenak dira, errealitatearen adierazle kondentsatuak. Jaietan norbanakoa kolektibora hurbiltzen duten prozesu subjektibo eta objektiboak ematen dira. Beraz, festak bizitzaren erdigunean kokatzen ditugu, jendartearen balioak, nortasunak, ideologiak eta egiturak birsortzen dituztelako. Jaiak jendartean dauden gatazkak, zapalkuntzak eta diskriminazioak adierazten dituzte: hierarkia anitzak, botere harremanak, indarkeria, rol banaketa... Orokorrean, hegemonikoak diren genero eredu eta heteroaraua indartuz.

Jaietan, “dena libre” denaren aitzakiapean, eraso sexisten ofentsiba nabaria da: begiradak, irainak, gutxiespenak, bortxaketak, erailketak... Erasoen aurrean gure erantzuna tinkoa behar du izan, ez dago aitzakiarik, erasoekiko konplizitateak ezin du lekurik izan gure jaietan eta guztion inplikazioa behar da indarkeria hau ekidin eta salatzeke. Gainera, gure hautua jaietan emakumeek autodefentsa feministari ekiten jarraitzea da, nazkatuta gaudelako eta gure arteko aliantzaz, gureak diren plazak, kaleak eta gauak okupatu eta erasotzaileei hortzak erakustera goazelako.

Duten garrantziaren jakitun, baliatu ditzagun jaiak sistemari iseka egiteko, probokatzeko eta nahi ditugun herri eta harreman ereduak eraikitzeke. Betebehar, estres, kontrol eta gehiegizko planifikaziotik aldenduz, erabili dezagun jaietako indar sortzailea eredu askatzaileak praktikara eramateko: publiko-pribatua, lan-aisialdi edo borroka-plazera dikotomiak behingoagatik lehertzeko! Gozamenetik, jakintzak eta bizipenak elkartrukatu eta iraultza gorpuztu dezagun. Boteredunen aurrean ez gaudelako bakarrik eta jaietan komunitate loturak indartzeko eta elkarrekin izateko aukera badugulako.

Bide horretan ezinbestekoa deritzogu, batetik, herri jaiak bazter askotan pairatzen ari diren erasoaldiei aurre egitea, eta bestetik, jai ereduaren inguruko lanketa ikuspegi feminista batetik egiteari. Norberak birsortzen dituen eruedetatik gure jardun kolektibora. Honela, gure jaietako antolaketa eta garapena bera, prozesu kontziente bilakatu behar dugu zirrikitu guztietatik, eta ezarria den ordena soziala eraldatzeko baliatu ditzagun: nola antolatzen den jai batzordea, egitaraua osatzeko orduan jarraitzen ditugun irizpideak, zein arduratzen den zaintza lanez, eta erasoei aurre egiteko alde zurretik adosten ditugun erantzunak edo protokoloak aztertzeari.

Norberak erabakiz, guztiok gozatuz, sortu ditzagun festak guztiontzako espazio seguru eta gozamen iturri! Soilik gure jardunaren eta ekintzen jabe bagara eskaini ahal izango ditugu guztiok gozatzeko moduko ikuskizun, kalejira, harreman, musika, otordu, txaranga, jolas zein dantzak. Aurten ere, emakume gehiago izango gara Euskal Herriko plazetan jaiak askatasunez biziz, gozatuz, dastatuz, usainduz. Gure buruak zainduko ditugu eta elkertasuna oinarri izanik jaietan izaten diren eraso sexistei erantzungo diegu.

Nik erabaki, guk gozatu!!!



euskal herriko bilgune feminista
Euskal Herrian, 2015ko ekaina

FIESTAS POPULARES FEMINISTAS, 2015
¡YO DECIDO, NOSOTRXS GOZAMOS!!!

“Tengamos la fiesta en paz!” hemos oído una y otra vez. Y no es una vana afirmación, ya que las fiestas se han vendido como burbuja de escape de la realidad. Los gobiernos de derechas fieles al modelo patriarcal y capitalista hacen de las fiestas un producto de consumo, atacando las fiestas populares. Y utilizan las fiestas para fomentar su modelo de sociedad.

Pero claro, las fiestas no son espacios de paz y alegría ajenos a la sociedad. Las fiestas son políticas, para todo el mundo. Son expresiones sociales y culturales llenas de contenido simbólico, expresiones condensadas de la realidad. En las fiestas se dan procesos subjetivos y objetivos que acercan individuo y colectivo. Por lo tanto, entendemos que las fiestas ocupan un lugar central en nuestras vidas, donde reproducimos los valores, identidades, ideologías y estructuras de la sociedad. Las fiestas expresan los conflictos, las opresiones y las discriminaciones existentes en la sociedad: múltiples jerarquías, relaciones de poder, violencia, distribución de roles... En general, reforzando el modelo de género y la heteronorma hegemónicos.

En fiestas, bajo la excusa del "todo vale", se agudiza la ofensiva de las agresiones sexistas: miradas, insultos, desprecios, violaciones, asesinatos... Nuestra respuesta ante las agresiones sexistas debe ser firme, no hay excusas, no hay lugar para la complicidad ante las agresiones en nuestras fiestas y es necesaria la implicación de todas las personas para evitar y denunciar esta violencia. Nosotras continuaremos con la autodefensa feminista de las mujeres, porque estamos hartas y porque mediante nuestras alianzas, vamos a ocupar las plazas, calles y noches que nos pertencen, y a enseñar los dientes a los agresores.

Siendo conocedoras de su importancia, utilicemos las fiestas para burlar el sistema, para provocarlo y para construir el modelo de pueblo y de relaciones que queremos. Dejando a un lado el exceso de obligaciones, estrés, control y sobreplanificación, utilicemos la fuerza creativa de las fiestas para llevar a la práctica modelos liberadores: reventemos de una vez dicotomías como público-privado, trabajo-ocio o lucha-placer! Desde el placer, intercambiemos sabiduría y experiencias, encarnando desde hoy nuestra revolución. Porque no estamos solas frente al poder y porque en fiestas tenemos la oportunidad de reforzar lazos comunitarios y de ser juntas.

En ese camino nos parece indispensable, por una parte, hacer frente a la oleada de agresiones que están sufriendo en muchos rincones las fiestas populares, y por otra parte, trabajar el modelo de fiestas desde una perspectiva feminista. Desde lo personal a la práctica colectiva. De esta manera, la propia organización y desarrollo de nuestras fiestas tiene que ser un proceso consciente por todos los resquicios, que nos sirva para cambiar el orden social establecido: cómo se organiza la comisión de fiestas, las pautas que seguimos al determinar el programa, quién se ocupa de los trabajos de cuidado, y las respuestas que previamente acordamos para responder a las agresiones o el análisis de protocolos.

Cada unx decidiendo, para que todxs gocemos, ¡hagamos de las fiestas un espacio seguro y fuente de disfrute para todxs! Solamente tomando consciencia de nuestras prácticas y acciones podremos ofrecer espectáculos, "kalejiras", relaciones, música, comidas, charangas, juegos y bailes para el disfrute de todas las personas. También este año, habrá más mujeres en las plazas de Euskal Herria viviendo, disfrutando, saboreando y oliendo las fiestas en libertad. Cuidaremos de nosotras mismas y con la solidaridad como base responderemos a las agresiones sexistas que se da en fiestas.

Yo decido, nosotrxs gozamos!!!!



euskal herriko bilgune feminista
En Euskal Herria, junio de 2015